



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

2023ko azaroaren 13an, eguerdiko ordu bata eta hogeita hamar minutuak zirela, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/andereak: Sres/as – Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONETSI

Eragozpenik agertu ez baita, onetsi da 2023ko urriaren 3an egindako bilkuraren akta.

BIGARRENA.- KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA, KULTUR OLA ERAIKINEKO TABERNA-JATETXEA KUDEATZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO LIZITAZIOARI BURUZKOA.

Kultur Olako taberna-jatetxearen kudeaketa esleitzeko kontratazio mahaiak helarazitako aktaren berri eman da. Aurreko bilkuran jakinarazi zen bezala, proposamen bakarra aurkeztu zen, zailtasun teknikoengatik lizitazio-plataformatik kanpo bidali zena.

Kontratazio mahaiak, aurkeztutako kudeaketa proposamena aztertu ondoren, uste du proposamenak ez duela betetzen baldintza agiriko hainbat ataletan ezarritakoa. Hain zuzen ere, ez zuen ziurtatzen jendaurreko zerbitzua euskaraz beteko zenik; izan ere, barran eta zerbitzatzeko aritzeko adierazitako pertsonak ez daki euskaraz, nahiz eta adierari duten bi pertsona hartuko dituztela, B2 ezagutza mailakoak, lanaldi partzialean aritzeko. Baina ez da zehazturik gelditu zein diren pertsona horien funtzioak eta lan ordutegia. Beste alde batetik, iraileko hamabostaldi bat ezarrita dago oporraldi gisa; ez da betetzen, beraz, agirian udako irekitze egutegiari buruz ezarritakoa. Halaber, eskaintzan berariaz adierazi da zerbitzua itxita egonen dela jaiegunetan, eta jaiegun orokorretarako "ad hoc" irekitzeko edo ez irekitzeko erabakia hartuko da, eta zuzendaritzaren erabakiaren mende egonen da balizko aldaketa bat. Balizko ez-egoteei dagokienez, zuzendaria gaixotzea kasu, zabalik uzten du behar den denboran erabat itxita edukitzeko aukera.

Zerbitzu honen kudeaketa berariaz zehaztutako gutxieneko batzuen menpe eman behar denez, hala nola langile euskaldunek artatzea jendea, uda osoan irekita edukitzea (bidezko asteko atsedeen-egunak izan ezik) eta Kultur Ola irekita edukitzeko gainerako egutegia betetzea, aurkeztutako proposamena ez dator bat baldintza agirian ezarritakoarekin.

Kontratazio Mahaiak egindako txostena eta proposamena aztertu ondoren, Osoko Bilkurak erabaki du lizitazioa esleitu gabe uztea eta aurkeztutako proposamena ezustea.

Era berean, erabaki da, prozedura honetan gutxik parte hartu dutenez, baldintza agiriko alderdi guztiak berrikusiko direla eta 2024rako beste lizitazio bat egitea aztertuko dela.

Erabakia lizitatzailari jakinaraziko zaio, bidezko ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- AEZKOA DIGITALIZATZEKO ETA ARRATZOLAKO ZERBITZUGUNERAKO HARTUNE ELEKTRIKOA EGITEKO PROIEKTUEN OBRA-ZIURTAGIRIAK.

Informatu da, Aezkoako Batzarre Nagusiko proiektuen barneko obra ziurtagiri hauek egin direla: Digitalizazioa eta Arrazolarako elektrizitate-hartunea.

Digitalizazio proiektuari dagokionez, ziurtatutako obraren zenbatekoa enpresari egindako esleipenaren berekoa izan da, guztira 270.718,14 eurokoa da, BEZa barne. Sisnet teknologia berriak enpresak egin ditu. Alde aurretik eman zuen Nafarroako Gobernuak (Proiektu Estrategikoak) dirulaguntza, Next Generation funtsak erabilia.

Obra dagoeneko ziurtatu eta ordaindu da, eta dagokion justifikazioa aurkeztu da Nafarroako Gobernuan

Proiektua gauzatzeko Batzarre Nagusiarri aurreratutako dirulaguntza 300.000,00 €-koa izan zenez, lanen % 100 finantzatzeko, 29.281,86 € itzuli behar dira, eta Batzarre Nagusiaren kontuan sartu zenetik sortutako interesak aplikatuko zaizkio.

Bestalde, Montajes Eléctricos NOI SAL enpresari esleitutako Arrazolako zerbitzugunerako hartune elektrikoko lanen ziurtagiria egitea konplexuagoa izan da. Instalazioan jarri beharreko ekipamenduen parte bat entregatzeko eman zuten epeak zirela eta, ziurtatu da (bankuko bermea aurkeztu ondoren) etxola, transformadorea eta gelaxkak entregatu direla material biltze modura (hainbat hornitzailek emandako entregatzeko epea lana gauzatzeko eta justifikatzeko zegoena baino askoz luzeagoa zen). Enpresa esleipendunak aurkeztutako justifikazioa kontuan hartuta, dagokion ziurtagiria egin da, entregatzeke dauden materialak jasotzen dituen. Obra 2024ko martxoan jasoko da, gutxi gorabehera.

Proiektuaren esleipen-zenbatekoa 101.913,06 €-koa izan zen, BEZik gabe (123.314,80 €, BEZa barne), eta ziurtagiria 123.024,80 €-koa izan da, BEZa barne, esleipen-prezioa baino zertxobait txikiagoa. Lan honen obren zuzendaritza 2.420,00 eurokoa izan da. Guztira, 125.444,80 €-tan egiaztatu da proiektua gauzatu dela. Jarduera horiek 95.847,80 €-ko dirulaguntza jasotzen dute gehienez, baina justifikazioa egin ondoren, aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa izanen da, esleipen-bajaren ondorioz, 87.811,36 €-ko dirulaguntza kobratzea aurreikusi da, justifikatutako gastuen % 70aren baliokidea.

Batzarre Nagusia bi espedienteetan egindako likidazioen eta justifikazioen jakinaren gainean gelditu da.

LAUGARRENA.- APARKALEKUen PROIEKTUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ARIBE APARKALEKUAREN HASIERAKO MEMORIA ETA ORBAIZETAKO MUNIZIO OLAKO PROIEKTUA.

Aurreko bilkura batean jakinarazi zen bezala, Ondare Historikoaren Zerbitzuak Munizio Olarako aparkalekuen proiektuan hiru eremu sartzeko baimena eman zuen. Proiektua dagoeneko idatzi da, eta dagokion justifikazioa aurkeztu da Pirinioetako planarekin lotutako ekintzetarako laguntzen deialdiaren barruan. Deialdi hori % 100ean diruz lagundu da, Batzarre Nagusiaren eta Orbaizetako udalaren arteko lankidetzaren proiektua baita. Proiektu hori Batzarrekide kide guztiei bidaliko zaie, berriki deitzen. Oraingoz, Konfederazio Hidrografikoan aurkeztu da baimena eskatzeko, eta horixe izanen

da gehien luzatuko den izapidea. Ondare Historikoaren Zerbitzuari ere aurkeztuko zaio, berrikus dezan, aldaketaren bat egin behar bada ere.

Hauxe da bertan jasotako partiden banakapena:

Jarduketan gauzatze materiala 3 zonetan:	136.959,25 €
Gastu orokorrak % 10	13.695,93 €
Industria etekina % 6	8.217,56 €
Kontrataren aurrekontua, guztira:	158.872,73 €
BEZ % 21	<u>33.363,27 €</u>
Kontratuaren aurrekontua + BEZa	192.236,00 €

Obra-zuzendaritzako teknikarien ordainsariak: 11.534,16 €

Aurrekontu orokorra, guztira: 203.770,16 €

Aribeko aparkalekua gauzatzeko aurrekontuaren laburpena

01 Aurretiazko jarduketak	2.630,00 €
02 Lur-mugimendua	8.176,00 €
03 Zoruak eta zoladura:	90.490,80 €
04 Itxiturak eta seinaleak	11.215,00 €
05 Segurtasuna eta Osasuna	1.500,00 €
06 Hondakinen kudeaketa	500,00 €
Ibilgailuak aparkatzeko materiala gauzatzea	114.511,80 €
Gastu orokorrak % 10	11.451,18 €
Etekin industrialak % 6	6.870,70 €
Kontrataren aurrekontua, guztira:	132.833,67 €
BEZ % 21	27.895,07 €
Kontratuaren aurrekontua + BEZa	160.728,76 €
Ordainsariak (obren idazketa eta zuzendaritza, BEZa barne):	13.855,93 €
Aurrekontu orokorra, guztira:	174.584,69 €

Proiektu horiek 2024ko aurrekontuak egiten direnean ere berrikusiko dira.

BOSGARRENA.- TURISMO-HELMUGAKO JASANGARRITASUN PLANARI ESKATUTAKO JARDUERAK.

Aezkoako Batzarre Nagusiak Helmuga Turistikoko Iraunkortasun Planaren (PSDT) barruan garatu beharreko jarduera guztiak zehaztu direla jakinarazi da. Plan hori Espainiako Turismo Administrazioaren esku hartzeko tresna bat da, helmuga turistikoko jasangarritasunerantz eraldatzea bultzatzeko. Plan espezifiko hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) bidez finantzatzen da.

Pirinioei dagozkien proiektu guztien artean, Batzarre Nagusiak sustatutako hiru sartu dira: Aribeko aparkaleku bat egitea (Aribeko Udalarekin adostuta), Irabiako pista konpontzea, horiek % 80an finantzatuta, eta, gainera, Kultur Ola taberna-jatetxeko sukaldeari dagozkion gastuen % 100.

SEIGARRENA.- BAZKALEKUAK KUDEATZEKO ZERBITZUEN KONTRATUA LUZATZEA.

Laza SC enpresari esleitutako bazkalekuak eta zerbitzu anitzak kudeatzeko sinatutako kontratua abenduaren 31n amaituko da. Baldintza-agiriko 5. klausulan ezarritakoaren arabera, kontratua urtebetez luzatzea dago, gehienez ere bost urtez (barne dago hasierako urtea eta luzapen guztiak). Alderdiak idatziz adierazi beharko dute kontratua luzatu nahi dutela, dagokion urterokoa amaitu baino 45 egun lehenago gutxienez.

Laza enpresak kontratua luzatzeko eskaera aurkeztu du, eta Batzarre Nagusiaren erabakia falta da.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du bazkalekuak eta zerbitzu anitzak kudeatzeko kontratua beste urtebetez luzatzea, 2024. urteari dagokiona, kontratazio-baldintzak arautzen dituen agirian ezarritakoaren arabera. Akordio hori Laza SC enpresari jakinaraziko zaio eta dagokion dokumentua sinatuko da.

Halaber, kontratu hau finantzatzeko hurrengo aurrekontuetan kreditu egokia gaitzea erabaki da.

ZAZPIGARRENA.- HAINBAT

- Pistak hobetzeko bi jarduketa egin behar direla jakinarazi da: Olara iristean dagoen zulo bat konpontzea eta Itolazeko harri-lubetaren inguruan zahorrak zabaltzea.

- 2023-2027 Landa Garapenerako Planaren (LGP) kargurako laguntzen deialdia argitaratu da. Aztertuko da funts horietatik dirulaguntza lortzeko jarduerarik aurkez daitekeen.

- Nafarroako Idazkaritzetako merezimendu lehiaketa bidezko egonkortze prozesuko destinoen zerrenda argitaratu da: Aezkoako Batzarre Nagusiari Izagako Administrazio Zerbitzuen Mankomunitateko egungo idazkaria esleitu zaio. Une honetan oraindik ez dakigu noiz amaituko den prozesua ezta noiz hartuko duen ere kargua. Batzarre Nagusia jakinaren gainean gelditu da.

- P lerroko proiektua- Larrayoz jaunak aurkeztutako idazki bat irakurri da. Bertan adierazten denez, interesgarritzat jotzen da Aezkoako Batzarre Nagusiak Defentsa Ministerioari eskatzea gerra zibilaren ondoren Aezkoako Batzarraren jabetzako lurretan, P lerroa izenekoaren barruan, egin ziren eraikuntza (bunkerrak) guztien kokapenari eta planoei buruzko datuak, ondoren azterlan bat egin ahal izateko eta, hala badagokio, zabaltzeko eta hobetzeko jarduketak egin ahal izateko. Batzarre Nagusiak informazio hori eskatzea erabaki du.

- 4 haranak, bilera- 4 bailarako (Aezkoa, Zaraitzu, Garazi eta Zuberora) ordezkariak bildu dira. Abenduan, 7 eguneko oinezko ibilaldi gidatu baten proiektua aurkeztuko da. Lau haranak lotzen dituzten ibilbideekin egingen da, eta sei etapatan haranetan sortutako espazioak komunikatuko dira. Zirriborroa bidaltzen dutenean, etapei buruzko ekarpenak egiteko aukera egonen da. Bileraren berean, POCTEFA mikroproiektuaren likidazioari buruz ere hitz egin zen, 2022 eta 2023 urteetan egin dena: Aezkoa-k eta Garazik aurreikusitako jarduketa guztiak gauzatu dituzte, baina Zaraitzuk eta Zuberook ez; horregatik erabaki zen webgune komuna eguneratzea, egin gabeko gastuen soberakinarekin. Hasieran aurreikusitako hezitzaileak orain zurraren inguruan planteatzen dira, baina jarduketa hori 2024rako zehaztuko da.

- Europako garai-elkarte bat dagoela jakinarazi da, kultura ondarea babestea helburua duena; Aezkoa ibarra elkarte horretan ordezkartuta egotea eskatu da. Batzarre Nagusiak positibotzat jotzen du ordezkartza hori, eta, beraz, elkartearekin harremanetan jarriko da atxikitze prozesua zehazteko, informazio gehiago dagoenean.

- Urrobi Partzuergoaren batzarrak eta Zuzendaritza Batzordeak egindako bileren ondoren, Juan Esteban Merino Batzarre Nagusi honetako kidea aukeratu da, Urrobi Partzuergoko lehendakari, eta Oier Zaldua, Erroibarko Udaleko zinegotzia, idazkari.

- Jakinarazi da M. Petrisan jaunaren bidez Pablo Sarasate musikariaren amari buruzko dokumentazio bat jaso dela. Pablo Sarasateren ama Orbaizetako Olan jaio zen, eta bere semearen prestakuntza eta karrera

musikari gisa sustatzen jardun zuen. Bi biografia daude argitaratuta, bat Nagore Ferrerek idatzirikoa eta bestea Lleidako unibertsitateko Trías irakaslearena.

ZORTZIGARRENA.- GALDE-ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko laurak eta hamabost minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.